

# buzoia

## Otsailak 2-3

**ARABA**

Laudio (Goikogane) ▪ Alto Campoo. Eski irteera. Tel: 94-6725021.

**BIZKAIA**

Bilbo (Bidea Orientazio Taldea) ▪ Euskal Ligako proba La Peñan. Tel: 94-4414879.
Bilbo (Egunsentia) ▪ Arrigorriaga, Malmasin (362 m), Basauri zehakaldia. Tel: 609-417440.
Durango (Tabira) ▪ Elurretara irteera. Baqueira Beret. Tel: 94-6203153.
Galdakao (Ganguren) ▪ Eski irteera Frantziako Cauterets estaziora. Informazioa: 94-4562326.
Sestao (Galindo) ▪ Santa Ana (1.042 m), Villafria de San Zadornil. Tel: 94-4009294.

**GIPUZKOA**

Andoain (Euskalduna) ▪ Aralarko Itzulia. Lehen etapa. Lekunberri, Iribas, Baraibar, Errazkin, Betelu. Tel: 943-592232.
Donostia (C.V.Camping) ▪ Eski irteera. Marxa Beret herri proba. Inf: 943-428479.
Eibar (Klub Deportiboa) ▪ Larunbatean Arbigano, Gesaltza. Tel: 943-201904.
Errenteria (Urdaburu) ▪ Eski irteera. Marxa Beret herri proba. Tel: 943-527879.
Hernani (Mendiriz Mendi) ▪ Somport-Candanchu. Iraupen eskia eta alpinoa egiteko aukera. Tel: 943-332745.
Legazpi (Izadi Zaleak) ▪ Uharte-Arakli, San Migel, Lakuntza. Tel: 646-629552.

**NAFARROA**

Elizondo (Baztango Mendizaleak) ▪ Itzulegi, Aritzakun, Hirubelakaskoa, Itzulegi.
Iruñea (Anaitasuna) ▪ Lizarrusti, Albiasu. Tel: 948-254900.
Iruñea (Laguna) ▪ Iabar, Huarte. Satrustegi (1.204 m). Tel: 948-181233.
Lizarra (Lizarra M.E.) ▪ Iraupen eskiko irteera. Tel: 948-552235.

**ZUBEROA**

Maule (Bortükariak) ▪ Maidalena. Zalgize. Tel: 0559281556.

## Otsailak 9-10

**ARABA**

Gasteiz (Mercedes Benz) ▪ Larunbatean Arantza, Unanu, Izu, Artikutza. Tel: 945-185403.
Laudio (Goikogane) ▪ Azpeitia, Sañu. Tel: 94-6725021.

**BIZKAIA**

Basauri (Baskonia) ▪ Isterbegi (1.027 m). Santiago bideko bigarren etapa. Tel: 94-4495728.
Bermeo (Sollube 707) ▪ Eski irteera Pirinioetara. Tel: 676-620195.
Bilbo (Egunsentia) ▪ Arriola, Artia, Gaboño (1.175 m). Barria, Larrea. Tel: 609-417440.
Bilbo (Mendizale Zoroak) ▪ Landarratx (892 m), Bergara.
Bilbo (Alpino) ▪ Jocano, Montemayor (1.105 m), Krutzeta (1.171 m), Repiko (1.187 m), Osma. Tel: 94-4337422.
Durango (Tabira) ▪ Anboto (Mariren koba). Tel: 94-6203153.
Leioa (Leioa M.T.) ▪ San Martin de Elines, Muñata (1.179 m), San Martin de Elines. Tel: 689-721917.
Meatzaldea (Meatzal Fabrik) ▪ Pancorbo, La Verdina (1.356 m). Burgos. Antolatzailea: Mello Mendi Taldea.
Portugalete (Ganerantz) ▪ Berrobi, Uzturre (730 m), Tolosa. Tolosako Inauteriak. Tel: 94-4615405.
Sestao (Alpino) ▪ Eguillor, Mortxe (1.123 m), Eguillor. Nafarroa. Tel: 94-4721379.

**GIPUZKOA**

Errenteria (Urdaburu) ▪ Eski irteera Somport-Candanchuko estaziora. Tel: 943-527879.
Legazpi (Izadi Zaleak) ▪ Kortazar, Elgoibar. Tel: 646-629552.
Pasaia (Jaizkibel) ▪ Arabako Bira. 14. etapa. Agiñaga, Sojo. Tel: 943-514700.
Urretxu-Zumarraga (Ostadar) ▪ Andia mendikatea. Bakaiku, San Adrian ermita, Lizarraga mendatea, Beriain, Huarte-Arakil. Tel: 943-723385.
Zarautz (Pagoeta) ▪ Biriatu, Mandale, Ibardin, Larrun, Lizuniaga. Bidasoako mendi zelatariak. Tel: 943-132911.

**NAFARROA**

Iruñea (Gaztaroa) ▪ Chinebral de Gamueta (2.312 m), Linza. Tel: 948-143419.
Iruñea (Nafarroa K.E.) ▪ Artouste, Gourette. Mendiko eski zeharkaldia. Tel: 948-224324.
Iruñea (Lagunak) ▪ Elorrio, Udalatx (1.092 m), Durango.
Iruñea (Txantrea M.T.) ▪ Arantza, Mendaur, Aurtitz. Tel: 948-134484.
Iruñea (Anaitasuna) ▪ Erronkariarren bidea. El Paso, La Cruceta. Tel: 948-254900.
Sakana (Sakanako Mendizaleak) ▪ Arettera.

**ZUBEROA**

Maule (Bortükariak) ▪ Bildoze, Lapitzaga. Tel: 0559281556.

## ESKIA

### Mendiko Eskiko Munduko Lehen Txapelketa jokatu da Serre-Chevalierren

Aurreko asteburuan jokatu zen Mendiko Eskiko Munduko Lehen Txapelketa, Frantziako Serre-Chevalier eski estazioan. Erabateko arrakasta izan zuen parte-hartze aldetik, eta hori pauso garrantzitsua izan zen kirola Neguko Olinpiar Jokoetan sartzeko bidean. Taldeka Ivan Murada eta Graziano Boscacci italiarrek osatutako bikotea gailendu zen mutiletan, eta nesketan, berriz, Valerie Ducognon eta Delphine Oggeri frantziarrek osatua. Banaka, berriz, Valerie Ducognonek bigarren koroa jantzi zuen, eta mutiletan, Stephane Brosse nagusitu zen.

## IZOTZ ESKALADA

### Godefroy Perroux izotz eskalatzaile aitzindaria hil da, Chamonixen

Godefroy Perroux izotz eskaladako aitzindari nagusietako bat joan den asteazkenean hil zen, urtarrilak 23, Bourgeateko izotz horman, Les Houcheseko bere etxetik oso gertu, berak oso ongi ezagutzen zuen jauzian. Antza, izotzak ez zien eutsi bere piolet kolpeei eta sekzio osoa erori zen. Perrouxek 45 urte zituen, eta, 70eko hamarkadaren amaieratik gaur arte, izotz eskaladaren mundua irauli zuen. Datu esanguratsu bat: Frantziako izotzeko bide klasikoetan hamarretik zortzi berak zabalduak dira.

### Bitxkov eta Papert nagusitu dira Munduko Izotz Eskaladako Kopako hirugarren proban

Suitzako Saas Fee herrian jokatu zen iragan asteburuan Munduko Izotz Eskaladako Kopako hirugarren proba. Bi eratara jokatu zen: zailtasuna eta abiadura. Zailtasuneko proban Dimitri Bitxkov errusiarra eta Ines Papert alemaniarra nagusitu ziren. Abiaduran Papert gailendu zen berriro, baina mutiletan Alexandre Matveev errusiarra nagusitu zen.

## emanaldiak

### Otsailaren 1etik aurrera

Iruñea (Nafarroa K.E.) ▪ Mikel Zabalzak *La cara norte del Dunagiri* proiekzioa eskainiko du gaur iluntzeko 20:00etan taldearen egoitzan (Jarauta, 78).
Andoain (Euskalduna) Datorren otsailaren 7an, osteguna, Iñaki Alkainek diapositiba emanaldia emango du: *Trekingak Peruko Mendikate Zurian*. Iluntzeko 20:00etan Euskaldunaren elkartean (Kale Nagusia 31 bis)

## ikastaroak

### Otsailak 2-3 eta 9-10

Donostia (Gipuzkoako Goimendi Eskola) ▪ Izotzetako alpinismo ikastaroa (Hastapena) eta izotz eskalada (II. maila). Ikastaroa Telera mendigunean eta Viella inguruan izango da. Izotzean eta korridoreetan igoera errazak edo zailtasun ertainekoak egiteko ezaguerak irakatsiko dira. Informazioa eta izen emateak: 943-461440. Ikastaroaren zuzendaria: Jon Ugarte (945 445202).

### Otsailak 9-10

Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Mendiko eski ikastaroa. Hobekuntza. Inf: 948-513233.

### Otsailak 17-18 eta 23-24

Donostia (Gipuzkoako Goimendi Eskola) ▪ Mendiko eski ikastaroa Tena bailaran. Mailak: hastapena eta hobekuntza. Ikastaroaren zuzendaria: Sergio Maiztegi. Informazioa eta izen emateak: 943-461440.

## lehiaketak

### Hilabetero

Donostia (Vasco de Camping) ▪ Argazki lehiaketa berria. Hilabeteko argazkia. Hilero argazki bat sarituko dute. Nahitaezkoa da taldeko bazkide izatea. Egileak 13x18 neurriko argazkia aurkeztu beharko du, mendiarekin edo naturarekin zerikusia duena. Argazkia hilabete bakoitzeko 10. eguna baino lehen aurkeztu beharko da, taldearen egoitzan, egilearen datuak, argazkiaren izenburua eta non aterea den adieraziz. Saria: 10.000 pezeta, oroigarria eta argazkigintzarako materiala.

## bidaiak

### Otsailaren 8tik-12ra

Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Mendiko eskiko bidaia. Inauteriak Otsailaren 8tik 12ra. Pirinioak: Pallars-Aran. Inf: 948-513233.

### Otsailaren 9tik 17ra

Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Iraupen eskia. Jurako zeharkaldia. Inf: 948-513233.

**oharra:**

Urte berria dela eta, 2002ko ibilaldi, proiekzio, ikastaro eta abarren egutegia ahalik eta azkarren bidali, Buzoia atal honetan lekua izan dezaten.
**EUSKALDUNON EGUNKARIA (MUNDUMIRA gehigarria). Gudarien etorbidea z/g. 20140-ANDOAIN**
**mundumira@egunkaria.com**



## Datorren ostiralean boulder proba Gasteizen

Datorren ostiralean, otsailak 8, arratsaldeko 18:00etatik aurrera boulder edo blokeko eskalada proba jokatuko da Gasteizko Hegoalde kiroldegiko rokodromoan. Proba Gasteizko Udaleko rokodromoek antolatu dute, Udalaren, Estadio Fundazioaren, Vital Kutxaren eta K-2 kirol zentroaren babesarekin. Izena ematea bi euro kostako da. Informazio gehiago: 945-16 18 80.